

PROIEKTUEN DEIALDIA / KOMIKIEN EGONALDI GURUTZATUA

Cité Internationale De La Bande Dessinée Et De L'image (Angulema)

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao (Bilbo)

La Maison De La Littérature (Quebec)

2027KO DEIALDIAREN OINARRIAK

1. AURKEZPENEA

Quebeceko La Maison de la littérature, Angulemako Cité internationale de la bande dessinée et de l'image eta Bilboko Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroa den Azkuna Zentroa elkartu egin dira hiru komikigileri egonaldi bat eskaintzeko (bata frantziarra, bestea espainiarra eta bestea quebecarra izango da), Anguleman, Bilbon eta Quebecen, hurrenez hurren.

2. XEDEA

Egonaldi gurutzatuen programa hau jarraian garatuko da Anguleman, Bilbon eta Quebecen 2027ko urtarrilaren amaiera eta apirilaren amaiera bitartean.

Egonaldi bakoitzak jaialdi bat izango du barne (Komikiaren Nazioarteko Jaialdia Anguleman, Gutun Zuria. Letren Nazioarteko Jaialdia Bilbon eta Québec BD Jaialdia Quebec-en).

Bekaren irabazleei Angulemako Maison des Auteurs zentroan, Bilboko Azkuna Zentroan eta Quebec-eko Maison de la littérature zentroan egingo zaie harrera.

Artista bakoitzak bere sorkuntza proiektua landuko du. Entitate bakoitzak, halaber, harrera programa bat antolatuko du, lantegiak, bilerak, elkarrizketak edo bestelako jarduerak barne, lanen erakusketa bat besteak beste, gehienez ere egoitzaren denboraren % 30a.

3. HARRERA-BALDINTZAK

- Hiri bakoitzean ekipatutako pisu bat –bakarka edo partekatua– eskuragarri jartzea, eta, partekatutako ostatua bada, barruan, egile bakoitzarentzako banakako gela bat.
- Hiri bakoitzean partekatutako lan-tailer bat eskuragarri jartzea

- Egile bakoitzari 4.500 euro ordaintzea, egonaldien iraupena estaltzeko.
- Mediku-asegurua eta bestelakoak kontratatzea hautatutako egileen erantzukizuna da, ez beste inorena.
- Egileak edo egileek egonaldietara egindako joan-etorrien gastuak barnean hartuta daude.

4. HAUTAGAIEN BETEBEHARRAK

Hautagaiak Maison des auteurs, Azkuna Zentroa edo Maison de la littérature zentrori bidali behar dute eskaera, bizi diren herrialdearen arabera. Erakunde bakoitzak hiru proiektu aurrez hautatuko ditu aurkeztutakoen artean. Azken aukeraketa hiru erakundeek egingo dute, eta hiru irabazleak aukeratuko dituzte batera.

Egonaldiaren eskaera egiteko, hautagaiak bi urteko praktika artistikoa izan behar du gutxienez, eta honako baldintza hauetako bat bete behar du:

Frantzia: frantsesa izan edo Frantzia bizi. Espainia: espainiarra izan edo Espainia bizi. Quebec: quebecarra izan edo Quebecen bizi.

5. EPEAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Inskripzioa egiteko epea deialdi hau argitaratzen den egunetik, hau da, 2026ko apirilaren 16tik 2026ko maatzaren 24ra arte, gaueko 24:00ak arte.
- Eskabideak honako hauek jaso beharko ditu, PDF fitxategi bakar batean:
- Egonaldian garatuko duen proiektu pertsonalaren aurkezpena (orrialde 1, gehienez)
- Egonaldian garatuko duen proiektu pertsonalaren laburpena edo zirriborroa (gehienez 3 orrialde)

- Egonaldian egiteko motibazio-gutuna (orrialde 1, gehienez)
- Egilearen biografia bat, non haren bibliografia, bizilekuko esperientziak eta sorkuntzak adieraziko diren (gehienez 5 orrialde).
- Egilearen obra artistikoaren dossierra (gehienez 5 orrialde)

- deialdi honetan jakinarazitako epe eta baldintzetan garatuko duela proiektua,
- proiektua behar bezala jakinarazteko beharrezko informazioa eta agiriak aurkeztuko dituela,
- Azkuna Zentroaren logoa jarriko duela obraren aurkezpen- eta ustiapen-ekitaldi edo -erabilera orotan.
- Egoitzaren amaieran bukaerako memoria bidali.

Eskaerak formatu digitalean bidali beharko dira, PDF formatuan, helbide honetara: deialdiak@azkunazentroa.eus

Epaimahaia hiru erakundeetako pertsonak osatuko dute. Besteak beste, aurkeztutako proiektuaren kalitate artistikoa, egilearen ibilbidea, proiektua egonaldiaren nazioarteko testuingurura egokitzea edo proiektuaren bideragarritasuna baloratuko ditu.

Deialdiari buruzko erabakia 2026ko uztailean jakinaraziko da. Web orri honetan argitaratuko da: www.azkunazentroa.eus. Horrez gain, onuradunari zuzenean jakinaraziko zaio, emandako helbidean. Hautatutako pertsonak onartzen duela berretsi beharko du astebeteko epean, erabakia jakinarazten zaionetik.

Finkatutako epean adjudikazioa onartuz gero, adjudikaziodunak 10 egun balioduneko epea izango du, adjudikazioaren berri eman zaionetik hasita, dokumentu hauek aurkezteko:

- NANaren kopia (edo baliokidea).
- Egonaldia egiteko eskatutako egunetan libre egongo dela egiaztatzen duen sinatutako adierazpena.

6. AZKUNA ZENTROAK ESKAINTZEN DU

Dirua honela ordainduko da: % 80 egonaldiaren hasieran eta gainerako % 20a egonaldia amaitzean, betiere Centro Azkuna de Sociedad y Cultura Contemporánea S.A. zentroaren izenean faktura aurkeztu ondoren.

Deialdi honetan hautatutako proiektuaren pertsona edo erakunde titularrak hitza ematen du:

- hautaketa-batzordearen ebazpena onartuko duela,
- aurkeztutako proiektuan egindako edozein aldaketaren berri emango duela idatziz, eta komikiarekin eta ilustrazioarekin lotutako
- programazioaren inguruan Az-k egiten dituen jardueretan parte hartuko duela,

7. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Parte-hartzaileak aurkezten dituzten proiektuen originaltasunaren eta egiletzaren erantzule dira, eta bermatzen dute haien gaineko jabetza intelektualeko eskubide guztiak legez dituztela. Alde horretatik, bermatzen dute Az-k modu baketsuan erabiliko duela, eta berriaz salbuesten dute berme hori ez betetzeak zuzenean edo zeharka eragin ditzakeen kalte eta/edo galeren erantzukizunetik. Merkataritzako jarduerak egiteko erabilera berriaz bazter utzirik, Az-k hautatutako proiektuei lotutako informazioa (testuala, ikus-entzunezkoa eta grafikoa) erabili ahal izango du bere jardueren berri emateko. Osorik edo partzialki eta bakarrik edo bestelako edukiekin batera erabili ahal izango du.

Hortaz, hautatutako pertsonak Az-ri lagako dizkio eskubide horiek, legeak baimendutako gehienezko denboraz, mundu osoko esparru geografikoan, Az-ko jardueren bilduma-argitalpenak, liburuxkak edo katalogoak paperean eta euskarri digitalean argitaratzeko (web orria eta Az-k kudeatutako sare sozialetako profilak barnean hartuta).

Era berean, kontratistak onartzen du Zentroan izandako egonaldian sortutako idatzizko, ikus-entzunezko, argazkigintzako eta bestelako material guztiak Az Artxiboaren parte izatea, betiere hezkuntza- eta dibulgazio-helburuekin (inoiz ez irabazi-asmoekin).

Hautatutako pertsonak berriazko baimena emango dio Az-ri bere izena erabil dezan egoki iruditzen zaion eran eta deialdi honen helburuen barruan.

8. PARTE-HARTZAILEEN IRUDI-ESKUBIDEAK

Parte-hartzaileek baimena emango diote Az-ri beren izena, kargua, irudia eta, noiz edo noiz, ahotsa -Az-ko espazioetan egiten diren argazki edo bideoetan jasotakoak- erabiltzeko, geroko informazio-zabalkunderako edo sustapenerako. Hori guztia, beren ohorerako eskubidearen aurka egon daitezkeen erabilerak eta aplikazioak kenduta, Ohorerako,



Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak ezarritako moduan. Aurreko eremutik kanpoko bestelako erabilerak berariaz utziko dira baimen honetatik kanpo.

9. JABETZA INTELEKTUALA

Parte-hartzaileek onartuko dute deialdi honetan emandako datu pertsonalak Azkuna Zentroaren titulartasuneko fitxategian sar daitezen -ondorio horretarako, Arriquirar plaza 4, 48010, Bilbo helbidean egoitza izanda-, deialdi hau eta haren administrazioa, fakturazioa eta/edo dokumentazioa kudeatu ahal izateko. Parte-hartzaileak bere lankideen datu pertsonalak ematen baditu, haien baimena jaso beharko du datu horiek Azkuna Zentroari jakinarazteko, helburu berberarekin. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke eta aurka egiteko, mugatzeko eta eramangarriak izateko

eskubideez baliatu ahal izateko, posta elektronikoko mezua bidali beharko da info@azkunazentroa.eus helbidera, mezuaren gaian sarbide-eskubideak jarrita, eta, eranskin gisa, eskutitz bat -datuen titularrak sinatuta eta jakinarazpenak egiteko helbidea adierazita-, eta NANaren edo antzeko egiaztagiri baten kopia bat gehituta.

10. JURISDIKZIOA

Bi alderdien artean sor litezkeen gatazkak konpontzeko adiskidantzazko ebazpenik lortzen ez bada, Bilboko epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira, beren eskumenari berariaz uko eginda.

11. OINARRIEN ONARPENA

Deialdira aurkezte hutsagatik, parte-hartzaileek onetsi egingo dituzte oinarri hauek. Deialdi berezi honetatik kanpo daude artista AZkideak eta Azkuna Zentroko kolektibo egoiliarak.

Bilbon, 2026ko apirilaren 17an.

Sorkuntzari laguntzeko best deialdi batzuk hemen kontsulta ditzakezu: azkunazentroa.eus